

A woman with short dark hair and red lipstick stands in the center of the frame. She is wearing a dark blue quilted jacket with a complex white and green pattern, and dark trousers. Behind her is a large, light-colored sculpture of a person's head and shoulders, with one arm raised. The background is a textured, light-colored wall.

Filipa César

Artista eta zinemagilea

LUTA CA CABA INDA

BORROKA EZ DA ORAINDIK AMAITU

Filipa César artista eta zinemagile portugaldarra da. Egun baina, Berlin eta Ginea Bissau artean bizi da, azken herrialde honetako historian ari baita lanean 2011 urtea geroztik, Ginea Bissauko zinema artxibo militantea bere ikerketaren zutabe bilakatu zuenetik. Donostiako Tabakaleran erakusketa inauguratu berri du, *Algodoizko algoritmoak* izenekoa. Bertan hiru ikus-entzunezko pieza daude ikusgai, Filipa Césarrek hainbat urtez egin duen bilaketaren emaitza direnak. Pelikula horietan, Ginea Bissauko askapen gerraren irudi, ahots eta honek utzitako testigantzen eta hausnarketen ehuntze prozesu kolektibo baten ondorioak ikus daitezke.

 JONE ALAITZ URIARTE
 DANI BLANCO

Nolatan piztu zitzaizun Ginea Bissauko interesa?

Nire etxean txikitatik entzun ditut Ginea Bissauko historiak eta kontakizunak, izan ere, gerra kolonialaren garaian, nire aita bertara joatera behartu zuten soldadu bezala. Portugaldarrentzat gerra koloniala zena, askapen-gerra izan zen ginearrentzat eta ia bi hamarkadaz aritu ziren borrokan. Urteak pasa ahala, ulertu nuen nire aita eta gure familiako gertuko beste hainbat lagun aktibista politiko konprometituak izan zirela eta frontetik ihes egiten saiatu zirela; baita ginearrei ere eskapu egiten lagundu zietela. Beraz, gerra hura gure familiaren historiaren parte izan da; eta Guinea Bissau berriz, nire aitak hiru urte luze pasa zituen lurraldea. Aitak gainera liburutegi eder bat zuen etxean gerra antikomunismaren gaineko liburu eta materialekin, eta esan daiteke herrialde honekiko interesa etxean bertan piztu zitzaidala.

Urte batzuk geroago irudietan ikusiko zenuen lehenengoz Ginea Bissau...

Uste dut ez zela 2003. urtera arte izan: lehenengoz Chris Marker-en *Sans Soleil* filma ikusi nuen eta nire bizitzako film garrantzitsuenetako bat bihurtu zen, bai eduki aldetik bai-

ta forma aldetik ere. Muntaiaren aldetik elementu magiko mordoa dago, gustatzen zait nola uztartzen dituen poetika eta politika ere; eta guztiaren gainetik dagoen bizitzaren gaineko galdera hori. Gainera, pelikula hura Japonia eta Ginea Bissau gertatzen zen eta zientzia fikzioa eta politika oso era berezian konbinatzen zituen. Guztiz harrapatu ninduen eta argi ikusi nuen Chris Marker eza-gutu behar nuela.

Ezagutu al zenuen?

Bai, lagun batzuen bitartez beraren-gana hurbiltzeko aukera izan nuen eta pare bat alditan egon ginen. Ginea Bissauaren gaineko galderak egin nizkion eta berak argi esan zidan benetako interesa banuen, bertara joan behar nuela

“

2011. urtean Ginea Bissauko Film Institutuan dozenaka pelikula-lata aurkitu nituen pilatuta, oso kontserbazio egoera txarrean. Lata horietan zeuden askapen-gerran grabatutako hainbat pelikula, herri baten historiaren testigu”

eta Sana Na N'Hada zinemagilea ezagutu. Eta joan baino lehen, Adolfo Bioy Casaresen *La invención de Morel* liburua irakurri behar nuela ere esan zidan. 2011. urtean lortu nuen Ginea Bissaua joatea eta bertan Sana Na N'Hada eta bertako beste zinemagile batzuekin jarri nintzen kontaktuan.

Orduan izan zenuen lehenengoz Ginea Bissauko zine artxiboaren berri.

Hala da, 2011ko urtarrilean Ginea Bissauko zinemagileak ezagutu eta hauek elkarriketatzen hasi nintzen



gerora publikatuko nuen argitalpen txiki baterako. Orduantxe, Bissauko Film Institutura eraman ninduten eta bertako gela batean zeuden, pilatuta, dozenaka eta dozenaka 16 milimetrotako pelikula lata. Pelikulak oso egoera txarrean zeuden, material asko galtzen ari zen kontserbazio egoera kaxkarragatik. Beraientzat oso garrantzitsua zen artxibo hori berreskuratzea, bertan baitzeuden

askapeneko gerran zehar grabatutako hainbat eta hainbat pelikula. Pena zen ikustea nola galtzen ari ziren herri baten historiaren testigu ziren irudi eta ahotsak; eta galdetu nien ea nire laguntza nahi zuten artxibo horrekin zer bait egiten saiatzeko.

Zein izan zen beraien erantzuna?

Baietz. Beraien herrialdeko zinemaren

historia bertan zegoen, hondatzen ari ziren pelikula lata horien artean. Sana Na N'Hada eta Flora Gomez zinemagileak saiatu ziren lehenago erakunde ugariarekin kontaktuan jartzen artxiboa salbatzeko, Portugalgo Fimotekarekin adibidez, baina tamalez ez zuten arrakastarik izan. Badirudi artxibo hau, garai hartan, ez zela garrantzitsua munduarentzat; beraz, ez zegoen inolako baliabiderik hau martxan jartzeko. Artearen sistema zen gelditzen zitzaien bide bakarra. Beraz, nolabait esatearren, sistema artistikoaz baliatu nintzen, hau da, guztiz estrukturatuta dagoen sistema honek eskaintzen dituen aukerez eta pribilegioez, proiektua martxan jartzeko Ginea Bissauko zinemagileekin batera.

Konta iezaguzu, zer nolako materiala zegoen zine artxibo horretan?

Inoiz editatu gabeko material ugari zegoen, irudi gordinak, askapen-gerraren garaikoak batez ere, baina baita bukatutako hiru pelikula ere: *Fanado*, *The days of Anconor* eta *O regresso de Amílcar Cabral*. Garaiko zenbait herrialde komunistetako -Txina, Errusia edo Kuba- pelikulen kopiak ere bazeuden. Garrantzitsua da ikustea zer zegoen artxibo horretan, artxiboak herri horren ilusio eta proiektzioen ispilu bezala funtzionatzen baitzuen. Zentzu horretan, zine geografiaren kontzeptua erabiltzea gustatzen zait, artxiboa eraikitze prozesuan zegoen herrialde baten ametsen lekuko zelako.

Nola hasi zineten material horrekin lanean?

Ikusi genuen oso zaila izango zela Portugalgo laguntza lortzea, garai horretan ez baitzegoen ez dirurik, ezta interes berezirik ere. Orduan Berlinera bueltatu nintzen eta bertako zinemagile lagunekin jarri nintzen kontaktuan, tartean Harun Farocki eta Avi Mograbi, eta artxiboaren berri eman nien. Esan zidaten Arsenal Institutuarekin jarri behar nuela kontaktuan, hauek baitziren artxiboa berreskuratzen lagun ziezaguketenak. Garai horretan, gainera, Farocki ingeniari batekin ari zen lanean 16 milimetrotako pelikula eskaneatzeko gailu bat garatzen. Hortaz, Berlinen taldetxo bat sortu genuen artxibo hau berreskuratze helburuarekin; eta Arsenal Institutuaren laguntzarekin, proiektua martxan jarri genuen. Oso interesgarria izan zen lan



prozesua: Ginea Bissauko zinemagileak ere talde honetan zeuden eta era kolektiboan martxan jarri genuen proiektuaren hastapenak izan ziren. Urte bat geroago diru laguntza bat jaso genuen eta artxiboaren digitalizazio prozesuarekin hasi ginen.

Testuinguru honetan sortzen da *Luta ca caba inda* proiektua. Zertan datza?

Luta ca caba inda-k kreoleraz “borroka ez da oraindik amaitu” esan nahi du. Izenburu hori artxiboan gordeta zegoen lata batean zegoen idatzita, eskuz; edizio prozesuan zegoen pelikula baten izenburua zen. Bertan askapen-gerraren garaiko irudiak zeuden, moztuta eta herrialdearen eraikitze irudiekin zegoen muntatuta gero. Gustatu zitzaizgun proposamena, iragana eta etorkizunaren promesa uztartzen zituen amaitu gabeko proiektua baitzen; eta gure proiektuaren lematzat hartu genuen. Borroka ez dela inoiz bukatutzat ematen, ideia hori ere erakargarria zen, izan ere, nahiz eta gerra bukatuta egon, herrialde independentearen eraikitze fase berrian ere borrokan jarraitu behar zuten, oraingoan armarik gabe. Beraz, gure proiektuari dagokionez, hasiera eta amaiera gabeko epe luzeko proiektua da. Lan ildo bat, non zineak mugituta, kolektiboki lan egiten dugun artxibo hau argitara ateratzeko. Proiektu honen barruan ekoitzi genuen *Spell Reel* pelikula, besteak beste, Donostiako Zinemaldian aurkeztu zena.

Hain zuzen *Spell Reel* pelikula nola egin zenuten galdetu nahi genizun... Guretzako garrantzitsua zen artxibo irekitzea, publiko egitea, ideia ez zen kontserbatu eta gordetzea baizik eta argitara eramatea, ginearrei beraiei herrialdeko historiaren zati ziren irudi eta ahotsak bere horretan bueltatzea.

Hilabetez Ginea Bissaun egon ginen zine mugikor batekin, bertako jendeari artxiboko irudiak erakutsiz eta beraiei testigantzak jasoz. Irudiak ikusi ondoren mikroa zabaltzen zen eta ginearrek beraiei oroitzapen eta kontuak kontatzen zituzten ikusitako irudien gainean. Mota askotako erreakzioak jaso genituen, gerrillan parte hartu zuten soldaduenak edo Portugalen alde borrokatu zutenenak, adibidez. Emanaldi hauek Sana Na N’Hada gidatzen zituen, bera ibili baitzen gerrillan kamerarekin askapen gerra filmatzen. Materiala editatua ez zegoenez, irudiak gordinak ziren, ez zegoen muntaiarekin egiten den kontakizun edo manipulaziorik. Irudiek bere kabuz hitz egiten zuten. Esperientzia hori jasotzen du pelikulak.

Kontatzen diguzun historia honetan Amílcar Cabral oso figura garrantzitsua da.

Bai, noski. Cabral Ginea Bissauko askapen mugimenduaren burua izan zen eta nire ustez, oso estrategia inteligentea erabili zuen gerra aurkera eramateko. Cabral lider politikoa zen eta agronomoa ere bazen; eta kulturaren alderdira estrapolatu zituen agronomia alorrean funtsezkoak zitzaizkion ikerketa, esperimendazioa eta hierarkia gabeko ezagutza. 1966an Fidel Castrok laguntza eskaini zion, soldaduak eta armak portugaldarren aurka aritzeko, baina Cabralek ezetz esan zion, ez zuen inolako nazioarteko interbentziorik nahi Ginea Bissauko gerran. Aldiz, honakoa eskatu zion: bere herrialdeko gazteak hezte-

ko laguntza. Horrela, gazte talde bat eraman zuen Kubara medikuntza, farmazia, laborategia eta zinema ikas zitzen. Zinema ikastera joan zirenen artean lehen aipatu dugun Sana Na N’Hada joan zen, hara joan aurretik pelikula bakar bat bera ere ikusi ez zuen gaztea. Cabralek jakin bazekien nazioarteko laguntzarik gabe gerra motelagoa izango zela, baina prozesu horretan gazte jendea ideia sozialisten inguruan hezteko eta garatzeko aukeraren alde egin zuen apustu.

Bukatzeko, Tabakaleran *Looming Creole* proiektua aurkeztu duzu, ehuntze teknikak eta kreole hizkuntzaren arteko harremana ardatz duen proiektua.

Odete Samedo antropologo ginearrek komentatu zidan nola ginearrek, kolonia garaian, ehuntzen zituzten oihalen atzealdean mezu kodifikatuak sartzen zituzten portugaldarren aurkako matxinadetarako. Ideia horrek bultzatuta ga-

ratu dut azken proiektu hau, eta hortik ere izenburua, izan ere, mezu horiek kreoleraz idazten zituzten portugaldarrek deszifratu ez zitzaizten. Kreolera askapen gerrako hizkuntza izan zen, Ginea Bissauko 32 etniak baino gehiagok hitz egiten zutena. Gainera, badago erlazio interesgarri bat, izan ere, Ginea Bissauko ehuntze sistema zulatutako txartelekin hasi zen

egiten, lehendabiziko ordenagailuek erabili zituzten txartel berdinak. Beraz, esan daiteke, ehuntzea gertuago dagoela ordenagailutik idaztetik baino. Tesi honen inguruko hausnarketa ere ageri da filmean. ●

“
Ginearrek, kolonia garaian, ehuntzen zituzten oihalen atzealdean mezu kodifikatuak sartzen zituzten portugaldarren aurkako matxinadetarako: kreoleraz idatzita zeuden, portugaldarrek ez ulertzeko”